

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Herrilana

LANDAREAK ETA ANIMALIAK sinbiosian eta elkar laguntzeko mutualismoan nonahi eta noiznahi topatuko ditugu. Sataginak, saguzarrak, erleak, txindurriak... Asko ari dira eta denek dute zer irabazia landareekin elkarlanari ekin ez gero.

Tankera askotako elkarlanak daude. Gure artean modan dagoen lorra edo auzolana bezalakoak batzuk.



30.000 barazki aldaera galdu dugu azken mendean; sei orduro bat desagerrarazten dugu.

Auzolana, irauteko ere komerietan dabilenari laguntzeko lan juxtu hori... Beste batzuen herrilana bezalako elkarlana nahiago nik. Iraupena ziurtatua eta ongi biziagatik, den-denok hobeto bizitzeko aukerak laiatzen dituen herrilana.

Guk, halere, ez landare ez animaliekin elkar bizi-terik nahi. Itxuraz.

Datuak argigarriak dira, biribil askoak. Adi:

- 1900. urtetik hona jakien aniztasuna %75 murriztu da Europan eta %93 AEBetan.
- Azienda aldaeren %33 desagertu da edo laster galduko da.
- Azken mendean 30.000 barazki aldaera edo barietate galdu dugu. Sei orduro beste bat desagerrarazten dugu.
- Itsasoetako arrainen %75 galzorian da.

Landareekin eta ekosistema osoarekin egin dezakegun herrilana, denontzako aberastasuna da. Bada, mundu guztian herrilana jasaten ari den eraso kapitalaren hiru ekimen nagusitan bideratuta dago: lanaren balioa gutxiestea, jakintza eta ezagutzaren komertzializazioa eta naturaren presaka eta muturkako suntsipena. Lehengo astean esana du Boaventura Sousa Santos soziologo portugaldarrak. Ni erabat nator. Nondik eutsi behar diogu gure herrilari?



400 olibondo aldaera

Olea europea var europaea, olibondoaren aldaera ugarietako lotutako aberastasun genetikoa jasotzen duen banku bat dago Kordoban (Espainia), Olibondo Germoplasmaren Munduko Bankua. Munduko bazter askotatik eramandako 400dik gorako barietate edo aldaeraren ondare genetikoa jasotzen eta jagoen dute bertan. Tartean Euskal Herrian milaka urtetan bertakotu diren aldaerak ere izango dira. Kanpotik ekarritako landarea izanagatik aspaldi baitugu bertako olibondo. Adibidez, Nafarroako eta Arabako olioari izaera berezia erarsten dion Arroniz aldaera eta bere ekotipo desberdinak.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertzea 28, beheko solairua 1-2
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz